Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa

2013

NEURRIEN PROGRAMA BATERATUA

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoa Koordinatzeko Kide Anitzeko Organoa

(29/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa)

Aurkibidea

1. SARRERA 1

2. ARAU OINARRIA 2

3. NEURRIEN PROGRAMA LANTZEKO METODOLOGIA 5

3.1. PROZEDURA 5

3.2. NEURRIEN KOSTUA ETA ERAGINKORTASUNA BALORATZEA 7

3.3. NEURRIEN PROGRAMA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA 8

3.4. EGITURA ETA EDUKIA 8

4. NEURRIEN PROGRAMAREN LABURPENA 9

4.1. DATU OROKORRAK 9

4.1.1. Ingurumen-helburuak betetzearekin zerikusia duten neurriak 11

4.1.2. Eskariak bermatzearekin zerikusia duten neurriak 14

4.1.3. Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurriak 15

4.1.4. Gobernantzarekin eta ezagutzarekin zerikusia duten neurriak 17

4.2. INBERTSIOEN LABURPENA 18

4.3. BANAKO NEURRIEN ZERRENDA 20

5. NEURRIEN PROGRAMAK UR MASEN EGOERAREN GAINEAN DITUEN ONDORIOAK 21

6. NEURRIEN PROGRAMA BERRAZTERTZEA ETA ALDATZEA 23

Gehigarriak

I. gehigarria. Administrazio eskudunen planak eta programak

II. gehigarria. Banako neurrien zerrenda

Taulen aurkibidea

1. taula. Neurrien Programa lantzeko kontsultatutako erakundeak 5
2. taula. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa. 2015eko eta 2021eko denbora-mugetarako aurrekontua, neurri moten arabera 9
3. taula. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa. 2015eko eta 2021eko denbora-mugetarako aurrekontua, neurriak finantzatzen dituzten erakundeen arabera 10
4. taula. Aurrekontuak neurri moten arabera (Gai Garrantzitsuen Eskematik banatutako taldeak) 19
5. taula. Aurrekontuak erakunde finantzatzaileen arabera 20
6. taula. Ingurumen-helburuak betetzeko aurreikuspena 21
7. taula. Neurriak finantzatuko dituzten erakundeak 31

Irudien aurkibidea

1. irudia. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa. 2015eko denbora-mugarako aurrekontua, neurri moten arabera (goian) eta neurriak finantzatzen dituzten erakundeen arabera (behean) 10

2. irudia. Aldaketa fisiko-kimikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 12

3. irudia. Aldaketa hidromorfologikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 13

4. irudia. Ingurune hidrikoaren biodibertsitatearen aldaketekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 14

5. irudia. Eskariak asetzearekin eta erabileraren arrazionaltasunarekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 15

6. irudia. Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 16

7. irudia. Kontu administratiboekin, antolamendukoekin eta kudeaketakoekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 17

8. irudia. Ingurune hidrikoaren ezagutza hobetzeko neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga 18

9. irudia. Lurrazaleko ur-masetako ingurumen-helburuak betetzeko aurreikuspena 22

10. irudia. Lurpeko ur-masetako ingurumen-helburuak betetzeko aurreikuspena 22

1. SARRERA

Dokumentu honek Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programaren integrazioa deskribatzen du, 125/2007 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian (29/2011 Errege Dekretuak aldatua) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko uraren plangintza eta kudeaketa koordinatzeko izenpetutako lankidetza-hitzarmenaren hirugarren klausulan (Ebazpen bidez argitaratua 2012ko abuztuaren 4ko BOEn) ezarritakoa betez.

Planean aurreikusitako helburuak erdiesteko jardun-aurreikuspenak txertatzen dituen plangintza-tresna da Neurrien Programa.

Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek dira helburu nagusiak: jabari publiko hidraulikoaren eta uren egoera ona eta babes egokia lortzea; ur-eskariak asetzea; eta eskualdearen eta sektorearen garapena orekatzea eta harmonizatzea, baliabidearen aukerak handituz, haren kalitatea babestuz, haren erabilera ekonomizatuz eta haren erabilerak ingurumenarekin eta gainerako baliabide naturalekin harmonian arrazionalizatuz.

Helburu horiek lortzeko, plangintza hidrologikoak honako irizpide hauek izango ditu gida: iraunkortasuna uraren erabileran kudeaketa integratuaren bitartez eta ur-baliabideak epe luzera babestuz, uren egoeraren narriadurari aurrea hartzea, ingurune eta ekosistema urtarrak babestu eta hobetzea eta kutsadura murriztea. Plangintza hidrologikoak, gainera, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzen lagunduko du.

Planaren helburuak lortzeko, behar-beharrezkoa da administrazio eskudunak hainbat urtetan garatzen ari diren lan-ildo jakin batzuekin aurrera jarraitzea eta, orobat, ingurumen-helburu berrienekin zerikusia duten beste jardun-ildo batzuei hasiera ematea.

Neurrien Programa ezartzeko ezinbestekoa da administrazio guztien lankidetza, ez agintari hidraulikoena bakarrik, baita ingurune hidrikoarekin zerikusia duten gainerako agenteena ere, erabiltzaileak ere barne direla.

Hitz batean, Plan Hidrologikoaren funtsezko elementuetako bat da Neurrien Programa, hainbat erakunderen aurreikuspenak integratzeko eta egokitzeko prozesuaren emaitza, uren kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuen Eskeman bildutakoaren oinarriaren gainean eraikia.

Dokumentua honako epigrafe hauetan egituratzen da:

- Arau-oinarria.
- Metodologia.
- Neurrien Programaren laburpena.
- Neurrien Programak ur-masen gainean dituen ondorioak.
- Berraztertzea eta aldatzea.
- I. gehigarria: Administrazio eskudunen planak eta programak.
- II. gehigarria: Banako neurriak.

Informazio xehatuena Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko administrazio hidraulikoen (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa estatuaren eskumenen esparruan eta Uraren Euskal Agentzia Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen esparruan) eskumenekoak diren Neurrien Programetan azter daiteke.

2. ARAU OINARRIA

Neurrien Programaren edukiak eta hura lantzeko jarraitu beharreko prozedura definitzen dituzten xedapen arauemaileak ondoren azalduko ditugu.

URAREN ESPARRU ZUZENTARAUA

Uraren Esparru Zuzentarauan (2000/60/EE) ondorengo agindu adierazgarriak ezartzen dira Neurrien Programari loturik.

Uraren Esparru Zuzentarauaren 11.1. artikuluak honako hau adierazten du: "Estatu kideek zainduko dute neurrien programa bat ezar dadin mugape hidrografiko bakoitzerako, edo haren lurraldean kokatutako nazioarteko mugape hidrografiko baten zatirako, 5. artikuluaren arabera eskatzen diren analisien emaitzak kontuan hartuta, 4. artikuluan ezarritako helburuak lortzeko. Neurrien programa horiek erreferentzia egin liezaiekete nazio-mailan egokitutako legeriaren ondorio diren eta estatu kide baten lurralde osoa hartzen duten neurriei. Hala balegokio, estatu kide batek bere lurraldean kokatutako mugape hidrografiko guztiei eta/edo nazioarteko mugape hidrografikoen zatiei aplikatzekoak diren neurriak har litzake."

Uraren Esparru Zuzentarauaren 11.2. artikuluan adierazten denez, "neurrien programa bakoitzak bere baitan hartuko ditu artikulu honen 3. atalean zehaztutako «oinarrizko neurriak» eta, behar izanez gero, «neurri osagarriak»".

11.4. artikuluan adierazten denez, «neurri osagarriak» oinarrizko neurrien gehigarri moduan sortu eta aplikatzen diren neurriak dira, 4. artikuluaren arabera ezarritako helburuak lortzeko asmoz.

Gainera, 11.5. artikuluaren arabera, jarraipenak adierazten duenean 4. artikuluan ezarritako ingurumen-helburuak ez direla beteko, neurri gehigarriak ezarri beharko dira.

11.7. artikuluak adierazten du Neurrien Programak 2009ko abenduan landu behar direla eta 2012ko abenduan neurri guztiak prest egon behar direla. 11.8. artikuluak, bere aldetik, adierazten du Neurrien Programa 6 urtez behin berraztertu beharko dela (11.8. artikulua) eta neurri berriak 3 urte igaro ondoren egon beharko direla prest.

Uraren Esparru Zuzentarauaren III.b) eranskina da kostu/eraginkortasun azterketa aipatzen den leku bakarra: "Azterketa ekonomikoak informazioa behar bezain zehatz bilduko du (datu egokiak lortzearekin lotutako kostuak kontuan hartuta)… 11. artikuluaren arabera neurrien programan sartu behar diren uraren erabilerari buruzko neurrien konbinazio errentagarriena aztertzeko, neurri horiek izan ditzaketen kostuen aurreikuspenetan oinarrituta".

Uraren Esparru Zuzentarauaren VI. eranskinak Neurrien Programan sartu behar diren neurrien zerrenda jasotzen du. Eranskin horren A zatiak adierazten du zuzentarau jakin batzuen arabera eskatzen diren neurriak beharrezkoak direla.

VI. eranskinaren B zatiak, bestalde, estatu kideek mugape hidrografiko bakoitzean 11. artikuluaren 4. atalean aurreikusitako neurrien programan sar ditzaketen neurri osagarrien zerrenda ez oso zehatza biltzen du.

UREI BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINA

Urei buruzko Legearen Testu Bateginaren 92. quater artikuluak honako termino hauetan aipatzen du Neurrien Programa:

> "1. Mugape hidrografiko bakoitzerako neurrien programa bat ezarriko da, mugapearen ezaugarriak zehazteko egindako azterketen emaitzak, giza jarduerak uretan dituen ondorioak eta mugapeko uraren erabilerari buruzko azterketa ekonomikoa kontuan hartuko dituena.
>
> 2. Neurrien programek lege honen 92. bis artikuluan adierazitako ingurumen-helburuak lortzea izango dute xede.
>
> 3. Neurriak oinarrizkoak eta osagarriak izan daitezke:
>
> a) Oinarrizko neurriak mugape bakoitzean bete behar diren gutxieneko eskakizunak dira, eta araudi bidez ezarriko dira.
>
> b) Neurri osagarriak dira kasu bakoitzean gehigarri moduan aplikatu behar direnak ingurumen-helburuak lortzeko edo uren babes gehigarria erdiesteko.
>
> 4. Urak babesteko eskumena duten administrazioek beren eskumenen esparruan onartzen dituzten oinarrizko neurriek eta neurri osagarriek osatuko dute neurrien programa".

Bestalde, 41.2. artikuluak adierazten duenez, "administrazio eskudunek, aldez aurretik, 92. quater artikuluan aintzat hartutako oinarrizko neurrien eta neurri osagarrien programak landu beharko dituzte, lege honetan aurreikusitako ingurumen-helburuak lortzera bideratuak. Neurrien programak plan hidrologikoetan koordinatu eta integratuko dira.

Espresuki koordinatu beharko dira, plan hidrologikoan integratzeko, Estatuko Administrazio Orokorrak edo mugapeko Agintari Eskudunen Batzordean parte hartzen duten eta itsasertza duten autonomia-erkidegoek landutako kostaldeko eta trantsizioko urei buruzko programak.

42.1. artikuluaren g atalak Neurrien Programaren eduki orokorra garatzen du.

PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN ERREGELAMENDUA

907/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduak Neurrien Programarekin zerikusia duten xedapenak hartzen ditu bere baitan. Hauek azpimarra daitezke, besteak beste:

43.3. artikuluak adierazten duenez, neurrien programak arrazionaltasun ekonomikoko eta iraunkortasuneko irizpideak bete beharko ditu ingurumen-helburuak lortzeko.

43.6. artikuluak adierazten duenez, "neurrien konbinaziorik egokiena hautatzeko, neurri osagarrien kasuan batik bat, kostu/eraginkortasun azterketa hartuko da oinarri. Azterketa horretan neurrien alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan hartuko dira".

43.7. artikuluak ezartzen duenez, "neurrien multzoa hautatzerakoan kontuan hartuko dira, kostu/eraginkortasun azterketaren emaitzez gain, neurri bakoitzak beste ingurumen- eta gizarte-arazo batzuen gainean dituzten ondorioak, nahiz eta ekosistema urtarren gainean zuzeneko eraginik ez izan, erregelamendu honetan adierazitako Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozesuarekin bat etorriz".

43.8. artikuluak ohartarazten duenez, “oinarrizko neurrien aplikazioak ezin izango du sortu, inola ere, ez zuzenean ez zeharka, lurrazaleko uren kutsadura handiagorik, neurri horiek ez aplikatzeak ingurumenean oro har kutsadura handiagoa sortzen duenean izan ezik”.

44. artikuluak oinarrizko neurrien zerrenda aurkezten du. Neurri horiek 45.etik 54.era bitarteko artikuluetan garatzen dira.

55. artikuluak neurri osagarrien zerrenda jasotzen du. Neurri horiek 56.etik 60.era bitarteko artikuluetan garatzen dira.

61.1. artikuluak zehazten duenez, “ur-masen ingurumen-helburuak erdiesteko neurri egokienak hautatzeko kontuan hartu beharreko tresna izango da kostu/eraginkortasun azterketa”.

61.2. artikuluak argitzen duenez, “kostu/eraginkortasun azterketa egiteko, abiapuntu gisa, joera-agertokiari dagokion ur-masen egoera eta ingurumen-helburuekiko aldea ebaluatuko dira. Neurri guztien aplikazioari dagozkion egoeren eta ingurumen-helburuekiko aldearen ebaluazioak aukera emango du neurri horietako bakoitzaren eraginkortasuna aztertzeko".

PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN INSTRUKZIOA

Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioak (ARM/2656/2008 Ministro Agindua, ARM/1995/2011 Aginduak aldatua) Neurrien Programari buruzko gidalerro zehatzagoak aintzat hartzen ditu 8. atalean.

8.1. atalak Programa aztertzeko eta definitzeko prozedura deskribatzen du.

Neurrien ezaugarritzea 8.2. atalean azaltzen da. Zehazki, 8.2.1.1. atalak oinarrizko neurriak ditu aztergai, eta 8.2.1.2. atalak neurri osagarriak. 8.2.2. atalean jardun espezifikoak eta tresna orokorrak bereizteko premia ezartzen da, eta 8.2.3. atalean adierazten da neurrien ezaugarritzea jasoko duen Neurrien Programaren laburpena sartu beharko dela planean. 8.2.4. eta 8.2.5. epigrafeek neurrien kostua eta eraginkortasuna dituzte aztergai, hurrenez hurren.

Azkenik, 8.3. atalak neurrien kostu/eraginkortasun azterketa aipatzen du, eta ur-masen ingurumen-helburuak erdiesteko neurri egokienak hautatzeko eta neurriz kanpoko kostuen azterketan ordezko neurriak aztertzeko kontuan hartu beharreko tresna gisa definitzen du.

3. NEURRIEN PROGRAMA LANTZEKO METODOLOGIA

3.1. PROZEDURA

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa Integratua lantzeko erabili diren oinarrizko dokumentuak Estatuaren eskumen-esparruko eta Eusko Jaurlaritzaren eskumen-esparruko Neurrien Programak izan dira. Horiek lantzeko erabilitako prozedura oso antzekoa izan da eta atal honetan deskribatuko dugu.

Erabili den abiapuntuko informazioa Gai Garrantzitsuen Eskema izan da; zehazki, dokumentu horretan identifikatutako problematika eta jardun-ildo nagusiak.

Jardun-ildoak zehaztu izanak ondoren deskribatuko diren faseak ekarri ditu berekin.

ADMINISTRAZIOEN PLANAK, PROGRAMAK ETA JARDUNAK BILTZEA:

Kontsulta egin zaie uraren kudeaketarekin zerikusia duten erakundeei lehen plangintza-denbora-mugan (2015. urtea) garatutako edo aurreikusitako plan, programa eta jardunen inguruan.

Hurrengo taulan kontsultatutako erakundeen zerrenda ikus daiteke. Bestalde, kontsultaren ondorioz identifikatutako plan eta programa adierazgarrienak jasota daude I. gehigarrian.

1. taula. Neurrien Programa lantzeko kontsultatutako erakundeak

ERAKUNDEA
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA
NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOA
Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
Ur Zuzendaritza Nagusia
Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertzen Mugapea
SUSTAPEN MINISTERIOA
Bilboko Portuko Agintaritza
Pasaiako Portuko Agintaritza
Bilboko Itsas Kapitaintza
GOBERNU AUTONOMIKOAK
EUSKO JAURLARITZA
Uraren Euskal Agentzia
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
Kultura Saila
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
Herrizaingo Saila
Osasun eta Kontsumo Saila
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila
NAFARROAKO GOBERNUA
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua
Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua
Sustapen Departamentua
Osasun Departamentua
GAZTELA ETA LEONGO GOBERNUA
Sustapen eta Ingurumen Kontseilaritza
Nekazaritza eta Abeltzaintza Kontseilaritza

ERAKUNDEA
Kultura eta Turismo Kontseilaritza
Ekonomia eta Enplegu Kontseilaritza
Osasun Kontseilaritza
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
Ingurumen Saila
Nekazaritza Saila
Lehendakaritza Saila
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
ARABAKO FORU ALDUNDIA
Ingurumen eta Hirigintza Saila
Nekazaritza Saila
Araba Uraren Agentzia
BURGOSKO PROBINTZIAKO DIPUTAZIOA
Nekazaritza eta Ingurumen Departamentua
ERAKUNDE KUDEATZAILEAK
Aguas del Añarbe - Añarbeko Urak, S.A.
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Busturialdeko Ur Partzuergoa
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa
Nilsa (Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.)
Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea
Txingudiko Zerbitzuak
BESTE BATZUK
Energiaren Euskal Erakundea
Ihobe
Neiker
Sprilur
Hainbat industria

AURREIKUSITAKO NEURRIAK AZTERTZEA ETA JARDUN BERRIAK KONTUAN HARTZEA:

Neurrien Programa lantzeko bigarren fasean mugapeko agenteek gauzatu dituzten jardunak aztertu dira, Planean aurreikusitako helburuak zein neurritan bete diren kontuan hartuta. Horren emaitza, egokitzat jo denean, agenteek kontuan hartutako neurriei gehituko zaizkien beste neurri batzuk planteatu dira.

3.2. NEURRIEN KOSTUA ETA ERAGINKORTASUNA BALORATZEA

KOSTUAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Programaren zenbatekoa zehazterakoan, oso izaera desberdineko neurriak baloratuko dira, besteak beste. Haietariko asko, arestian aipatu dugun moduan, administrazio publikoek landutako programazioan sartuta daude, plan eta programetan integratuta edo ez; beste batzuk, aldiz, plan hidrologikoaren garapenaren esparruan ebaluatu behar izan dira, administrazio eskudunek ez baitzituzten aurreikusita edo behar adina garatuta.

Horren ondorioz, kostuak baloratzeko aplikatutako irizpideak neurri bakoitzaren izaerara egokitu dira. Eskuarki, kasu bakoitzean informaziorik xehatuena erabili da, lehendik idatzita zeuden proiektuei edo gauzatzen ari diren jardunei egoki dakiekeena.

Agente publiko eskudunen aurreikuspenetan orain arte kontuan hartu ez diren neurriei dagokienez, kostuen zenbatespen bat egin behar izan da. Horretarako, "Guía técnica para la caracterización de las medidas (Neurriak ezaugarritzeko gida teknikoa)" (MARM, 2009) dokumentuaren irizpideei jarraitu zaie.

ERAGINKORTASUNA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Neurri batek ur-masa batean edo zenbaitetan egoera-helburuak lortzeko egiten duen ekarpen gisa definitzen da neurriaren eraginkortasuna. Bi modutan ebalua daiteke:

- Ur-masek jasaten dituzten presio adierazgarrien murrizketaren bidez, hau da, neurriak eragiten duen presio-inbentarioan islatutako presioen magnitudearen murrizketa ebaluatuta.
- Ur-masetan neurtutako inpaktuen murrizketaren bidez, hau da, neurriek ur-masen egoera-adierazleetan lortutako hobekuntzak ebaluatuta. Ebaluazio-metodo horrek eskatzen du aldez aurretik ezagutzea neurriak presioen murrizketan zenbaterainoko eraginkortasuna duen eta zein den ur-masek presio horien aurrean duten suszeptibilitatea.

Oro har, neurrien eraginkortasunaren analisia kualitatiboa izan da: neurriek presio adierazgarrien gainean izan dituzten ondorioak aztertu dira eta, ahal izan denean, ur-masen kalitate-elementuen gainean izan dituztenak. Azterketa banako ur-masetarako edo taldekatuetarako egin da, egoki iritzi zaion moduan. Ondoren, presioak murrizteko eta kalitate-adierazleek egoera ona erdiets dezaten lortzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri dira.

Alderdi jakin batzuen azterketa, hala ere, kuantitatiboa izan da. Alde batetik, alderdi kuantitatiboetan eragina duten neurrien eraginkortasuna kontuan hartzeko (emari ekologikoak betetzearen bermea), egungo eta etorkizuneko gogobetetasunaren helburuarekiko bateragarritasunari eutsiz, SIMGES simulazio-eredua erabili da, Aquatool interfazean integratua. Tresna hori aplikatzeak aukera ematen du sistemak aztertzea komeni den hainbat egoeraren aurrean (zirkunstantziak eta/edo aukerak) duen erantzuna lortzeko, azkenean helburu kuantitatiboak lortuko direla bermatzea ahalbidetuko duen egoera erdietsiko bada.

Bestalde, saneamendu- eta arazketa-jardunak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoan ingurumen-helburuak lortzeko zein garrantzitsuak diren kontuan izanik, jardun horiek ur-masen gainean dituzten ondorioen azterketa kuantitatibo espezifikoa egin da.

3.3. NEURRIEN PROGRAMA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA

Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioak zehazten du egiaztatu egin behar dela Neurrien Programa kontuan hartutako klima-aldaketaren balizko egoerara egokitzen den. Hori egiaztatzean, neurriak klima-aldaketara egokitzeko ahalmena eta plangintza hidrologikoaren helburuak lortzeko sendotasuna eta eraginkortasuna kontuan hartu beharko da.

Klima-aldaketaren agertokiei dagozkien ebaluazioak erabilgarri ez dauden artean, Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioan adierazitako erreferentziako ekarpen naturalen murrizketa globaleko ehunekoa aplikatzen ari da. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren kasuan, ehuneko hori % 2 da.

Baliabide-erabilgarritasunaren murrizketa, eskarien aurreikuspenak eta, hala badagokio, erabilgarri dauden azpiegituretako aldaketak, 2027ko denbora-mugarako baliabideen/eskarien sistemen modelaketa matematikoaren bidez simulatu dira. Azterketa horien emaitzak Plan Hidrologikoaren "Ustiapen-sistemak eta balantzeak" izeneko atalean jasota daude.

3.4. EGITURA ETA EDUKIA

Neurrien Programa Integratua honako maila hauetan egituratzen da:

- **Neurrien deskribapena:** neurrien deskribapen orokorra jasotzen du, neurriak jardun-ildoen arabera multzokatuta, Gai Garrantzitsuen Eskemaren antzeko egitura bati jarraiki. Neurri multzo bakoitzerako, problematikaren deskribapen laburra, jardunen proposamena eta, modu sinplifikatuan, haiekin lotutako kostuak jasotzen dira.

- **Banako neurrien zerrenda:** II. gehigarrian aurreikusitako neurri guztiak azaltzen dira, bakoitzaren informazio espezifikoarekin batera. Hala, arro hidrografikoa, autonomia-erkidegoa, denbora-muga (2015/2021), zenbatetsitako aurrekontua eta erakunde finantzatzailea adierazten dira.

Arestian esan den moduan, mugapeko hurrenez hurrengo esparruetako Neurrien Programetan xehetasun-maila handiagoa duen informazioa aurki daiteke.

4. NEURRIEN PROGRAMAREN LABURPENA

4.1. DATU OROKORRAK

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programaren egitura uren kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuen Eskeman ezarritakoa abiapuntu hartuta diseinatu da. Horrela, mugapeko problematikei erantzuten dieten kategoria hauetan multzokatu dira neurriak:

- Ingurumen-helburuak betetzearekin zerikusia duten neurriak: Aldaketa fisiko-kimiko eta hidromorfologikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginei buruzko neurriak eta ingurune hidrikoaren biodibertsitatearekin zerikusia dutenak sartzen dira.

- Eskariak asetzearekin eta erabileraren arrazionaltasunarekin zerikusia duten neurriak: Emari ekologiko minimoak ustiapen-sistemei ezarritako murrizketa gisa errespetatuz, hiri-eskaria eta gainerako erabilerak zerbitzatzeko bermean eta kalitatean maila egokia mantentzeko beharrezkoak diren neurriak jasotzen dira.

- Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurriak: Muturreko fenomenoen inpaktuak, funtsean uholde eta lehorteenak, prebenitzera eta murriztera zuzendutako neurriak gehitzen dira.

- Gobernantzarekin eta ezagutzarekin zerikusia duten neurriak: Kontu administratiboekin, antolamendukoekin eta kudeaketakoekin zerikusia duten neurriak eta ingurune hidrikoaren ezagutza hobetzera zuzendutakoak ditu aztergai.

Neurrien Programak 2015eko denbora-mugarako aurreikusitako inbertsioa 1.169 milioi eurokoa da. Hortaz, ratioa urteko 195 milioi eurokoa da gutxi gorabehera.

Gainera, Plan Hidrologikoaren lehen denbora-muga horretan hainbat arrazoirengatik aurrera eraman ezingo diren jardunak (zati batean edo osorik) identifikatzen ditu Programak. 1.621 milioi euro dira, eta Plangintza Hidrologikoaren hurrengo denbora-mugetan gauzatzeko utziko dira.

2. taulak neurri moten araberako inbertsioen banaketa azaltzen du, eta 3. taulak erakunde finantzatzailearen araberako inbertsioak. 1. irudiak grafiko moduan erakusten du informazioa.

2. taula. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa. 2015eko eta 2021eko denbora-mugetarako aurrekontua, neurri moten arabera

NEURRI MOTA	noizko: 2015		noizko: 2021		Guztizko orokorra	
	Aurrekontua (€)	%	Aurrekontua (€)	%	Aurrekontua (€)	%
Ingurumen-helburuak betetzearekin zerikusia duten neurriak:	673.286.892	57,6	709.784.667	43,8	1.383.071.559	49,6
Eskariak asetzearekin eta erabileraren arrazionaltasunarekin zerikusia duten neurriak	310.430.594	26,6	341.276.681	21,0	651.707.275	23,4
Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurriak	143.390.247	12,3	557.776.808	34,4	701.167.055	25,1
Gobernantzarekin eta ezagutzarekin zerikusia duten neurriak	41.636.179	3,6	13.140.333	0,8	54.776.513	2,0
Guztira	1.168.743.912	100,0	1.621.978.490	100,0	2.790.722.402	100,0

3. taula. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa. 2015eko eta 2021eko denbora-mugetarako aurrekontua, neurriak finantzatzen dituzten erakundeen arabera

FINANTZAKETA	noizko: 2015		noizko: 2021		Guztizko orokorra	
	Aurrekontua (€)	%	Aurrekontua (€)	%	Aurrekontua (€)	%
Estatuko Administrazio Orokorra	176.436.280	15,1	468.020.558	28,9	644.456.838	23,1
Gobernu autonomikoak	428.539.445	36,7	250.907.630	15,5	679.447.074	24,3
Aldundiak	207.078.021	17,7	73.398.179	4,5	280.476.201	10,1
Tokiko administrazioak	32.266.962	2,8	12.000.000	0,7	44.266.962	1,6
Hornidura eta saneamendua kudeatzen dituzten erakundeak	208.244.767	17,8	74.897.735	4,6	283.142.502	10,1
Beste batzuk	116.178.437	9,9	742.754.387	45,8	858.932.824	30,8
Guztira	1.168.743.912	100,0	1.621.978.490	100,	2.790.722.402	100,0





1. irudia. *Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Neurrien Programa. 2015eko denbora-mugarako aurrekontua, neurri moten arabera (goian) eta neurriak finantzatzen dituzten erakundeen arabera (behean)*

4.1.1. Ingurumen-helburuak betetzearekin zerikusia duten neurriak

Aldaketa fisiko-kimikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurriak

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko administrazioek eta industria-sektoreak ahalegin handia egin dute azken urteotan isurketa puntualen baldintzak hobetzeko. Hala, hondakin-uren araztegi asko hasi dira funtzionatzen mugapearen esparruan, eta produkzio-prozesuak eta arazketa-teknologia industrialak hobetzea sustatzeko hainbat programa jarri dira abian. Aldi berean, hainbat saneamendu- eta arazketa-proiektu gauzatzen ari dira gaur egun. Hala eta guztiz ere, hiri- eta industria-isurketek ibai eta estuarioen zati garrantzitsu batean sortutako arazoek bere horretan jarraitzen dute. Horiek horrela, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko lurrazaleko ur-masa askoren egungo egoera txarra isurketa horiek sortutako inpaktuaren ondorio da oraindik ere.

Problematika horri konponbidea aurkitzeko planteatutako neurrien artean, oraindik gauzatzeko dauden hondakin-urak saneatzeko eta arazteko oinarrizko azpiegiturak osatu beharra nabarmendu behar da, baita egun dauden instalazioak ingurumen-helburu berrietara egokitzeko eta kokagune sakabanatuetan aplikatutako saneamendu-konponbideak hobetzeko premia ere. Gainera, saneamendu-sistema jakin batzuetan bereziki komenigarria da euri-urak biltzeko eta bideratzeko sistemak gehitzea edo hobetzea.

Arazo horiei konponbidea aurkitzeko tresna nagusiak Uren Kalitatearen Plan Nazionala: Saneamendua eta Arazketa (2007-2015), EAEko 2015eko Saneamendu eta Arazketa Plana eta Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzentzailea dira. Gaztela eta Leongo kasuan, Ingurumen Ministerioaren eta Gaztela eta Leongo Juntaren arteko Lankidetza Protokolo Orokorra sinatu zen Uren Kalitatearen Plan Nazionala gauzatzeko. Plan horietan oraindik gauzatzeko dauden oinarrizko azpiegiturak eta Uraren Esparru Zuzentarauaren ingurumen-helburuak betetzeko neurri osagarriak identifikatu eta haien aurrekontuak egin dira.

Plan horiek hainbat jardun jasotzen dituzte: hondakin-uren araztegi berriak eraikitzea; kolektore-sareak gauzatzea eta/edo egun daudenak handitzea, gune edo industria berriak arazketa-sistemekin konektatzeko; gaur egun funtzionatzen ari diren arazketa-sistemak hobetzea, Uraren Esparru Zuzentarauak sartutako ingurumen-kalitateko helburu berrien eskakizunetara egokitzeko; gune txikietan saneamendu- eta arazketa-konponbideak hobetzea; eta, azkenik, euri-urak biltzeko jardunak garatzea (sare bereiziak eta/edo ekaitz-tankeak).

Aurreko guztiaz gain, beste iturri batzuek sortutako kutsadura (kutsatutako lurzoruak eta sedimentuak, nekazaritzan eta basogintzan jatorria duen kutsadura, eta abar) murriztera zuzendutako jardun multzo zabal eta askotarikoa jasotzen du Plan Hidrologikoaren Neurrien Programak. Substantzia arriskutsuen inpaktua aztertzeko eta murrizteko neurri espezifikoak ere sartzen dira.

Jardun horien guztizko aurrekontua 1.282 milioi eurokoa da gutxi gorabehera. Zenbateko horretatik, 602 milioi euro 2015eko denbora-mugan gauzatzea aurreikusten da. Gainerako jardunak Planaren hurrengo denbora-mugetan egiteko utziko dira.

2015eko denbora-mugarako, hauek dira jardun horiek finantzatzeaz arduratuko diren agente nagusiak: autonomia-erkidegoetako gobernuak (% 26,8); aldundiak eta hornidura eta saneamendua kudeatzen duten erakundeak (bien artean % 44,2), bakarka edo lankidetza-hitzarmenak sinatuta; eta estatuko administrazio orokorra (% 18,6).

Adierazi beharra dago jardun batzuen kasuan (guztizko aurrekontuaren % 0,8 hartzen dute) oraindik ez direla definitu finantzaketa-mekanismoak. 2021eko denbora-mugarako, kopuru hori % 32,4ra iristen da.



2. irudia. *Aldaketa fisiko-kimikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

Aldaketa hidromorfologikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurriak

Lurrazaleko ur-masa askotan baldintza morfologikoak nabarmen aldatuta daude hiri- eta industria-okupazioaren ondorioz. Transformazio horren neurria hain garrantzizkoa da, ezen masa horiek jasaten duten presio handienetakoa dela pentsa baitaiteke. Gainera, praktikan leheneratu ezina da askotan.

Ibilguen ezaugarri morfologiko naturalak aldatzen dituen eta ibai-tarteen arteko konektagarritasuna oztopatzen duen beste presio bat presa txiki ugari izateak dakarrena da. Horietariko asko ez dira erabiltzen gaur egun. Azpiegitura horiek hesi-efektua sortzen dute arrain-espezieentzat eta sedimentuentzat.

Neurrien Programak emari ekologikoen erregimenak lortzeko jardunak, lurrazaleko ur-masei lotutako ekosistemak kontserbatzeko, lehengoratzeko eta hobetzeko neurriak, eta ibai-konektagarritasuna hobetzeko neurriak hartzen ditu bere baitan. Azken horien artean, zaharkitutako azpiegiturak eraisteko jardunak eta erabiltzen diren presa txikiak ingurumen arloan egokitzekoak nabarmen daitezke.

Lehen denbora-mugako plangintzarako aurrekontuan atal honetan sartutako kopuruak 70 milioi eurokoak dira. 2021eko denbora-mugarako, gainera, beste 29 milioi euro inguruko jardunak planteatzen dira.

2015eko denbora-mugarako, estatuko administrazio orokorrak eta autonomia-erkidegoetako gobernuek finantzatu beharreko jardunak nabarmentzen dira, guztizko aurrekontuaren % 59 eta % 29 hartzen baitute, hurrenez hurren.



3. irudia. *Aldaketa hidromorfologikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

Ingurune hidrikoaren biodibertsitatearen aldaketekin zerikusia duten neurriak

Emari zirkulatzaileen murrizketak, kutsadura-fenomenoek, espezie exotiko inbaditzaileen presentziak eta ibilgu, ur-bazter eta estuarioen aldaketa fisikoak murriztu egin dute habitat naturalen eta fauna eta flora urtarreko espezie autoktono askoren hedadura.

Problematika hori dela-eta, Uraren Esparru Zuzentarauak eskakizun-maila handiagoa aintzat hartzen du bere artikuluetan eremu babestuen erregistrokoak diren ur-masentzat, modu horretan habitat horiek iraunaraztea eta biziraupena mehatxupean duten espezieak mantentzea bermatzeko asmoz.

Neurrien Programak ibai-erreserba naturalei eta Natura 2000 Sareko espazioei zuzendutako neurri batzuk hartzen ditu bere baitan, haiek kudeatzeko helburuak gehitzera bideratuak batik bat. Halaber, ekosistema urtarrei lotutako mehatxupeko espezieak babestearekin eta espezie inbaditzaileen jarraipenarekin eta kontrolarekin erlazionatutako hainbat neurri ere jasotzen dira.

Atal honen aurrekontua 1,7 milioi eurokoa da 2015eko denbora-mugarako. Ia aurrekontu osoa autonomia-erkidegoetako gobernuek (% 59) eta Europar Batasunak ("hainbat administrazio" finantzaketa-taldean sartua) (% 40) jarriko dute.



4. irudia. *Ingurune hidrikoaren biodibertsitatearen aldaketekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

4.1.2. Eskariak bermatzearekin zerikusia duten neurriak

Eskarien horniduraren egoera, bai bolumenez bai kalitatez, aski egokitzat jo daiteke Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoan. Hala eta guztiz ere, behar adinako bermerik ez duten egoera puntual batzuk daude gaur egun oraindik ere, batez ere agorraldian.

Eskariek hurrengo denbora-mugetan izango duten bilakaeraren aurreikuspenek adierazten dutenez, eskariak egonkortu egingo dira, baina klimaren etorkizuneko portaerarekin lotutako ziurgabetasunaren eta horrek ur-baliabideen erabilgarritasunean izango duen eraginaren ondorioz, komenigarria izan daiteke baliabide horiek eraginkortasunez erabiltzeko irizpideak bultzatzean oinarritutako kudeaketa-ereduak aplikatzea.

Hori dela-eta, Neurrien Programan aurreikusitako jardunak, oraindik ere konpontzeko geratzen diren berme-arazoei konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren azpiegiturak egiteaz gain, eskariak hornitzeko zerbitzuen antolamendu-egitura hobetzeko politikarekin jarraitzera zuzentzen dira; horretarako, sistemak sinplifikatzea eta elkarrekin konektatzea da asmoa, bermeak areagotzeko eta haien urrakortasuna gutxitzeko.

Gainera, gaur egun mugapeko administrazioak burutzen ari diren hiri-hornidurako sistemen eraginkortasuna hobetzen jarraitzeko neurriak, hiri-horniduretan uren kalitatea babesteko neurriak eta hornidura-sareak eta -instalazioak mantentzeko eta haiekin lan egiteko neurriak sartzen dira.

Azkenik, lehengoratutako urak erabiltzea sustatzera zuzendutako neurriak jasotzen dira.

Jardun horien guztizko aurrekontua 310 milioi euro ingurukoa da lehen plangintza-denbora-mugarako eta 342 milioi eurokoa bigarrenerako.

2015eko denbora-mugako jardunak batez ere autonomia-erkidegoetako gobernuek (% 42,4), aldundiek (% 22,3) eta hornidura eta saneamendua kudeatzen duten erakundeek (% 19,4) finantzatuko dituzte. Adierazi beharra dago aurrekontuaren % 10,6ren finantzaketa-iturria oraindik zehaztu gabe dagoela.



5. irudia. *Eskariak asetzearekin eta erabileraren arrazionaltasunarekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

4.1.3. Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurriak

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren ezaugarri orografikoen, klimatikoen eta hidrografikoen ondorioz, eta ibilgu nagusien uholde-lautadak okupatzea ekarri duen presio antropiko handiaren ondorioz, mugapea uhaldiekiko bereziki kaltebera den lur-eremu bat da.

Uholdeen prebentziorako gaur egungo ikuspegiak –uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko 2007/60/EE Zuzentarauan eta hura Espainiako araudira eraman duen uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuan biltzen denak– kokaleku berrien segurtasuna bermatuko duten irizpideak eta gaur egungo arriskuak murriztuko dituzten irizpideak aplikatzea aurreikusten du, betiere lurrazaleko ur-masen baldintza morfologikoak jardun desegokiez babesteko esparruaren barruan.

Arauzko esparru horren barruan daude Plan Hidrologikoaren Neurrien Programan barnean hartzen diren jardunak. Izan ere, horien artean barnean hartzen dira: urpean gera daitezkeen eremuetan lurzoruaren erabilera erregulatzeko edo mugatzeko neurriak, uhaldien aurreikuspena hobetzera zuzenduko diren tresnak garatzeko neurriak, babes zibileko neurriak eta, azkenik, hirigune finkatuetan uhaldien aurka babesteko egiturazko neurriak.

Bestalde, kantaurialdeko arroen esparruan, uholdeek baino garrantzi txikiagoa duen arren, balizko lehorraldiak agertzearen arazoa are larriagoa izan daiteke etorkizunean, klimaren bilakaerari buruzko gaur egungo aurreikuspenekin lotzen den ziurgabetasunaren ondorioz.

Aurreikusten diren neurrien artean, arestian aipatutakoez gain, hots, zerbitzuaren bermeak areagotzeko hornidura-sistemetan hobekuntzak egiteaz gain, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko estatuaren eskumen-esparruko Alerta eta Balizko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezia [PES] eguneratzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetako PESa idaztea aintzat hartzen da, eta biak dokumentu bakar batean integratzea. Halaber, 20.000 biztanleko populazioari edo populazio handiagoari bereizita edo modu mankomunatuan erantzuten dieten sistemetarako larrialdi-planak idaztea ere kontuan hartzen da.

Planak klima-aldaketak mugapean izango dituen ondorioei buruzko ezagutza areagotzeko beharrari erantzungo dioten neurriak planteatzen ditu, baita herri-administrazioen plangintza-estrategiak definitzeko kalkulu horiek diagnostikoaren informaziora txertatzeko beharrari erantzungo diotenak ere.

Planak, halaber, suteen eta ezusteko kutsaduraren inpaktuak prebenitzeko eta murrizteko neurriak jasotzen ditu.

Bestalde, presen segurtasunaren alorreko Planaren helburu nagusiak dira, alde batetik, arriskuak murriztea eta minimizatzea, eta, bestetik, gertaeraren bat izanez gero kalteak murriztea edo minimizatzea.

Ildo horretan, Uholde Arriskuaren aurreko Babes Zibileko Oinarrizko Gidalerroak eskatzen dituen presen ustiapena eta segurtasuna kudeatzeko dokumentuak lantzera zuzendutako jardunak aintzat hartzen ditu Plan Hidrologikoak. Halaber, onartutako larrialdi-planak ezartzea eta presen instalazioak eta berrikuspen-sistemak, direla estatuaren titulartasunekoak direla titulartasun pribatukoak, indarreko legeriara egokitzea kontuan hartzen du.

Atal honetan kontuan hartutako aurrekontua 701 milioi euro ingurukoa da. Zenbateko horretatik, 143 milioi euro 2015eko denbora-mugan sartzen dira. % 99 uholde-arriskuko eremuetan arriskua kudeatzeko neurrietara zuzentzen da.

2015eko denbora-mugan, aurrekontuaren % 64 autonomia-erkidegoetako gobernuek jarriko dute, eta gainerakoa hainbat administrazioren, hornidura eta saneamendua kudeatzen duten erakundeen, tokiko administrazioen eta, neurri txikiagoan, agente pribatuen artean banatuko da.



6. irudia. *Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

4.1.4. Gobernantzarekin eta ezagutzarekin zerikusia duten neurriak

Kontu administratiboekin, antolamendukoekin eta kudeaketakoekin zerikusia duten neurriak

Neurri multzo honek izaera arauemailea, antolamendukoa, administratiboa eta gizartea kontzientziatzekoa duten kontuak hobetzea du xede, ur-baliabideak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzeko, uraren zerbitzugintzan kalitate-maila handiagoak lortzea bateragarria izan dadin Uraren Esparru Zuzentarauan eskatutako ingurumen-helburuak betetzearekin eta, oro har, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko ekosistema urtarrei arreta eta balio handiagoa ematearekin.

Administrazioen arteko koordinazioa eta hiri-hornidurako sistemen antolamenduari eta kudeaketari buruzko alderdiak hobetzeko neurriak sartzen dira. Azken horien artean daude uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzea sustatzea, ura aurrezteko tarifa-politikak ezartzea eta uraren zerbitzuak eraginkortasunez egiteko behar adinako ahalmena duten erakunde kudeatzaileak bultzatzea.

Halaber, aprobetxamenduak eta isurketak administrazio arloan erregularizatzea eta urarekin zerikusia duten agenteak eta gizartea oro har sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko programak garatzea planteatzen da.

Azkenik, administrazio hidraulikoen kudeaketa-gastuei dagokien partida bat ere jaso da.

2015. urterako kalkulatutako aurrekontua 23 milioi euro ingurukoa da. Finantzaketa-taldeak estatuko administrazio orokorra (% 65,1), autonomia-erkidegoetako gobernuak (% 34,4) eta agente pribatuak (% 0,5) dira. Gutxi gorabehera 1,7 milioi euroko aurrekontua duten jardunak 2021eko denbora-mugan egiteko utziko dira.



7. irudia. *Kontu administratiboekin, antolamendukoekin eta kudeaketakoekin zerikusia duten neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

Ingurune hidrikoaren ezagutza hobetzeko neurriak

Lehenik, ingurune hidrikoari eta ekosistema urtarrei buruzko informazioa hobetzera zuzendutako neurriak dira. Gaur egun dauden kontrol-sareen bitartez ur-masen eta eremu babestuen egoeraren jarraipena egiteko lanekin jarraitzea, haiek pixkanaka hobetzea eta agenteen arteko informazioa koordinatzeko eta transmititzeko mekanismoak hobetzea aintzat hartzen dute.

Bigarrenik, ingurune hidrikoari buruzko informazioa ordenatzera eta antolatzera zuzendutako tresnak garatzea aurreikusten da, administrazioetako teknikariei, agente pribatuei eta herritarrei oro har informaziorako sarbidea eta hura erabiltzeko baldintzak errazteko.

Gainera, Plan Hidrologikoaren jarraipen egokia egiteko beharrezkoak diren neurriak ere jasotzen dira, Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako gidalerroekin bat etorriz. Azkenik, ikerkuntza-programa eta –proiektuetarako diru-laguntzak jasotzen dira.

2015. urterako kalkulatutako aurrekontua 18,5 milioi eurokoa da, eta finantzaketa-taldeak autonomia-erkidegoetako gobernuak (% 78), estatuko administrazio orokorra (% 21) eta hornidura eta saneamendua kudeatzen duten erakundeak (% 0,7) dira.



8. irudia. *Ingurune hidrikoaren ezagutza hobetzeko neurrien finantzaketa (%). 2015eko denbora-muga*

4.2. INBERTSIOEN LABURPENA

Atal honetan aurreikusitako inbertsioak islatzen dira, neurri moten (Gai Garrantzitsuen Eskemako taldeen banapena) eta erakunde finantzatzaileen arabera.

4. taula. Aurrekontuak neurri moten arabera (Gai Garrantzitsuen Eskematik banatutako taldeak)

PROGRAMA	noizko: 2015 Aurrekontua (€)	noizko: 2021 Aurrekontua (€)
1. Ingurumen-helburuak betetzearekin zerikusia duten neurriak		
1.1. Aldaketa fisiko-kimikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurriak		
1.1.1. Hiri- eta industria-jatorriko hondakin-uren saneamenduarekin eta arazketarekin zerikusia duten neurriak		
1.1.1.1. Saneamendu- eta arazketa-azpiegitura berriak ezartzea	379.314.461	416.493.517
1.1.1.2. Gaur egun dauden saneamendu- eta arazketa-sistemak egokitzea	3.605.802	1.150.000
1.1.1.3. Euri-urak biltzeko sistemak	48.401.882	59.359.900
1.1.1.4. Gune txikietako saneamendu-konponbideak	6.749.931	202.916.486
1.1.1.5. Saneamendua eta arazketa mantentzea eta erabiltzea	86.502.000	
1.1.1.6. Beste neurri batzuk	624.655	
1.1.2. Industria-jatorriko hondakin-uren arazketarekin zerikusia duten neurriak	52.276.438	
1.1.3. Kutsatutako lurzoru eta jalkinekin zerikusia duten neurriak	8.283.333	400.000
1.1.4. Nekazaritzako sektorearekin zerikusia duten neurriak	11.748.974	
1.1.5. Basogintzako sektorearekin zerikusia duten neurriak	4.204.614	
1.1.6. Lurpeko uren egoera hobetzeko neurriak		
Guztizko partziala	601.712.090 €	680.319.903 €
1.2. Aldaketa hidromorfologikoen ondoriozko ingurune hidrikoaren gaineko eraginekin zerikusia duten neurriak		
1.2.1. Emari ekologikoen erregimenak lortzeko neurriak	174.000	136.000
1.2.2. Lurrazaleko urei lotutako ekosistemak kontserbatzea, lehengoratzea eta hobetzea	65.051.939	21.060.764
1.2.3. Ibai-konektagarritasunerako neurriak	4.580.333	8.050.000
Guztizko partziala	69.806.272 €	29.246.764 €
1.3. Ingurune hidrikoaren biodibertsitatearen aldaketekin zerikusia duten neurriak		
1.3.1. Babestutako eremuen helburuak plangintza hidrologikoari gehitzea	85.897	
1.3.2. Mehatxupeko espezieak kudeatzeko planen helburuak plangintza hidrologikoari gehitzea		
1.3.3. Espezie inbaditzaileen jarraipena eta kontrola	1.682.633	218.000
Guztizko partziala	1.768.530 €	218.000 €
2. Eskarien hornidurarekin zerikusia duten neurriak		
2.1. Hiri-horniduraren eskariak asetzea eta baliabidea eraginkortasunez erabiltzea		
2.1.1. Hiri-hornidurarako azpiegitura berriak egitea edo daudenak sendotzea	140.803.140	341.276.681
2.1.2. Hornidura-sistemen eraginkortasuna hobetzea	6.976.326	
2.1.3. Hiri-horniduretan uren kalitatea babesteko neurriak	226.667	
2.1.4. Hornidura-sareak eta -instalazioak mantentzea eta erabiltzea	129.122.003	
2.2. Hirikoaz bestelako eskariak asetzea	1.286.123	
2.3. Ura berrerabiltzeko neurriak	32.016.335	
Guztizko partziala	310.430.594 €	341.276.681 €
3. Muturreko fenomenoekin zerikusia duten neurriak		
3.1. Uholde-arriskuko eremuetan arriskua kudeatzea	142.138.402	557.256.808
3.2. Lehortearen aurkako neurriak	150.000	520.000
3.3. Suteen inpaktuak prebenitzeko eta murrizteko neurriak	58.500	
3.4. Klima-aldaketaren ondorioei kontra egiteko neurriak	870.000	
3.5. Ezusteko kutsaduraren inpaktuak prebenitzeko eta murrizteko neurriak		
3.6. Azpiegituren segurtasuna bermatzeko neurriak	173.345	
Guztizko partziala	143.390.247 €	557.776.808 €
4. Gobernantzarekin eta ezagutzarekin zerikusia duten neurriak		
4.1. Kontu administratiboekin, antolamendukoekin eta kudeaketakoekin zerikusia duten neurriak		
4.1.1. Administrazioen arteko koordinaziorako neurriak	374.162	
4.1.2. Hiri-hornidurako sistemen antolamenduari eta kudeaketari buruzko alderdiak hobetzea	1.077.188	800.000
4.1.3. Ur-aprobetxamenduak eta isurketak administrazio arloan erregularizatzea	852.348	
4.1.4. Sentsibilizazio- eta prestakuntza-planak	6.991.513	950.000
4.1.5. Agintari eskudunen administrazio-unitateak kudeatzea	13.803.229	
Guztizko partziala	23.098.440 €	1.750.000 €
4.2. Ingurune hidrikoaren ezagutza hobetzeko neurriak		
4.2.1. Ingurune hidrikoaren kontrol- eta jarraipen-sareak	15.409.684	9.810.000
4.2.2. Uraren informazio-sistema	1.249.009	950.000
4.2.3. Plan Hidrologikoaren jarraipena	1.612.380	630.333
4.2.4. Berrikuntzako programa eta proiektuetarako diru-laguntzak	266.667	
Guztizko partziala	18.537.740 €	11.390.333 €
GUZTIRA	1.168.743.912 €	1.621.978.490 €

5. taula. Aurrekontuak erakunde finantzatzaileen arabera

FINANTZAKETA	noizko: 2015		noizko: 2021		Guztizko orokorra	
	Aurrekontua (€)	%	Aurrekontua (€)	%	Aurrekontua (€)	%
Estatuko Administrazio Orokorra	156.830.878	13,4	468.020.558	28,9	624.851.436	22,4
Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa	19.605.402	1,7	0	0,0	19.605.402	0,7
Estatuko Administrazio Orokorra guztira	176.436.280	15,1	468.020.558	28,9	644.456.838	23,1
Uraren Euskal Agentzia	351.927.613	30,1	222.782.630	13,7	574.710.243	20,6
Eusko Jaurlaritza	24.152.831	2,1	28.125.000	1,7	52.277.831	1,9
Nafarroako Gobernua	52.459.000	4,5	0	0,0	52.459.000	1,9
Gaztela eta Leongo Junta	-	-	-	-	-	-
Gobernu autonomikoak guztira	428.539.445	36,7	250.907.630	15,5	679.447.074	24,3
Foru-aldundiak	207.078.021	17,7	73.398.179	4,5	280.476.201	10,1
Tokiko administrazioa	32.266.962	2,8	12.000.000	0,7	44.266.962	1,6
